



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko martxoaren 4an

17 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektua. Aurkezturiko emendakinak (2. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena (12. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Beteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (14. or.).

**Serie A:
PROYECTOS DE LEY FORAL**

Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektua

AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduaren 128. artikulua xedaturikoa betez, hurrengoak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen dut: Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak. Foru Lege proiektu hori 1999ko urtarrilaren 14ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, hirugarren zenbakian argitaratu ere.

Iruñean, 1999ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektuak, bere lehen artikuluan, Nafarroako Errege Bardeak hartzen duen eremua azaltzen du, eta haibat inguru uzten ditu aipatu figuratik kanpo, Bardeako Natur Baliabideak Antolatzekeo Planean (NBAP) oinarriturik:

Lurralde eremua

1. Bi horietatik ateratzen da lurraldea mugaturik dagoela, alegia, Bardeako Komunitateak egun kudeatzen duen lurraldea dela, eta kanpoan geratu direla gune oso garrantzitsuak, Vedado de Eguaras deitutakoa, konparazione, Valtierrako udal dermioan berau. Betidanik izan da Bardeako lurralderik esanguratsuenetako bat –Peñaflor gaztelua ere han dago–, eta inguruekiko arras desberdintzen diren ezaugarri ekologikoak gordetzen ditu; laburbilduz, inguruko ondare historikoaren gune garrantzitsua da.

2. Parke Naturalaren lurralde-eremuan hurrengoak sartzea proposatzen dugu: Bardea ingura-

tzen duten pinudi guztiak, Caparroso, Mélida, Zarrakastelu eta Murillo el Cuende herrietan daudenak, hain zuzen. Hona: Santa Agueda eta La Quemada, Mélidan; El Saso, Chátiva eta el Llano de Larrate, Zarrakastelun; El Planoko pinudiak, Mélidan eta Murillo el Cuenden; eta La Sarda eta Cruchaga, Caparrosen.

Tiro poligonoa

Foru Lege proiektuaren 1. artikulua araberan, parke naturaletik kanpo geratzen da tiro poligonoak hartzen duen azalera (2.244 ha). NBAPn, 4.8.2 idazatian, agertzen denaren arabera “egoki dirudi Bardeako parke naturalean ez sartzea”. Are gehiago, NBAPk ez du inongo azterketarik egiten aipatu lurraldeari buruz, eta geroko utzi du erabakia, balizko eraginei buruzko azterlanean jasotzeko moduan utzi ere.

Nafarroako Parlamentua, hala ere, hainbat aldiz agertu da egungo tiro poligonoa deuseztearen alde, 1991tik hasi eta 1998ko abenduaren 8an azken erabakia onetsi duen arte. Gure ustez, erabaki horiek badute pisua bai NBAPren dokumentuan, bai Foru Lege proiektuaren zioen azalpenean agertzeko, eta erabilera militarri amaiera emateko, Defentsa Ministerioarekin izenpetu eta 2001.era artea irauten duen kontratua bertan behera utziz, berriztatu gabe, alegia.

Erabilera bereziko beste eremu batzuk

Foru Lege proiektuaren 1. artikuluan, halaber, parke naturalaren deklaraziotik kanpo geratu dira hurrengoak: Hondo de Espartosa (272 ha), Bandera (43 ha) eta Cinco Villas (13 ha)

Eremu batzuk Bardeako parke naturaletik kenduz gero, behar litezkeen helburuekin bat ez datozen erabilerak sartzen ari dira; helburuok, izan ere, ohiko erabilerak Bardeako ekosistemen zaintzarekin uztartzean dautza.

NBAPk dioen bezala, lurraldeak higituta baldin badaude, lur edo eremu horiek bereonertze-

ko neurriak hartu beharko lirateke. Erabilera berezietan beste erabilera batzuk sartu nahi badira (energia eolikoa, eta abar), hauxe utzi nahi dugu argi eta garbi: Bardeako azalera guztiak behar lukeela Hegaztien Babesgune Berezi (HBB) deklaratu izan.

Kudeatzeko organoa

Ari garen Foru Lege proiektuak, bere 3. artikuluan, Errege Bardeetako Komunitateari eman dio Parke Naturala kudeatzeko ardura, eta komunitate horrek izanen ditu indarra duen legediak Parke Naturala kudeaketa organoari esleitzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak.

4. artikuluan, Errege Bardeetako Batzorde Aholkuemailea sortzen da, kudeaketaren titularraren Komunitateari aholku emateko organoa, alegia.

Beste parke natural batzuetarako proposatu izan dugun bezalaxe, patronatua eratu beharko litzatekeela uste dugu: Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria -edo hark bere orde zizena- izanen luke buru, eta Bardeetako Komunitatea eta natura zaintzeko korporazio, erakunde eta elkarteak partaide funtsezko -kuantitatiboki zein kualitatiboki-; izan ere, parke naturalaren deklarazioak kontzeptio berria dakar, gure ustez, lurraldearen kudeaketari buruz, non ohiko erabilerak kontzeptu askoz zabalagoan txertatuko diren, ingurugiroa zaintzeari emanen baitzaio lehentasuna.

Hori guztia horrela, "Ezker Abertzalea" Parlamentuko Taldeak hauxe eskatzen du: Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

2. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Errege Bardeak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde zabal bat dira; ekosistema bereziki interesgarriak daude han, gizonaren eskuhartzeak gutxi aldatu dituen lurralde eremuak; izan ere, eremu horietako paisajeak, ekosistemak eta formazio geomorfologikoak balio arraroa dute, eta arreta berezia eman behar zaio horien kontserbazioari.

Hori kontuan harturik, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" ezin da bat etorri hainbat alde Bardeetako parke naturalatik at geratzearekin -tiro-poligonoa, konparazio-, parkeko baliorik

nagusienetako bat baitu, ingurugiroaren ikuspuntutik.

Beste alde batetik, guk uste dugu Natur Balia-bideak Antolatzeko Plana (Bardeako Batzar Nagusiak 1998ko uztailaren 23an behin-behineko onetsia, eta Nafarroako Gobernuak irailaren 7ko 266/1998 Foru Dekretuz behin betikoz onetsia) Parlamentuan ere izapidatu behar dela, aipatu parke naturalean aplikatu dezatela finkatzeko.

Bestalde, ezin dugu onartu parke naturalaren kudeaketa Bardeetako Komunitatearen esku baino ez izatea. Nafarroako IU-EBk apostu egiten du aipatu parke naturala kudeatzeko administrazio-ahalmen eta eskugo guztiak organo demokratiko, anitz eta benetan ordezkatzailerik baten eskutan uzteko. Era berean, Nafarroako Gobernuak ezin du ezikusiarrena egin parke naturala kudeatzeko garaian; izan ere, diru publikoa erabili behar baitu hura finantzatzeko.

Azkenik, ez deritzogu egoki Errege Bardeetako Batzorde Aholkuemaileari, haren osakera ez baitator bat Bardeetako lurraldeen erabileraren errealtatearekin.

Hori guztia horrela, osoko emendakina aurkeztu diogu Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektuari, eta Nafarroako Gobernuari itzultzea eskatu.

ARTIKULUEI ARKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

1. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hurrengo testua kendu: "Babes figura horretatik kanpo geratzen dira honako erabilera bereziko eremuok: Hondo de Espartosa (272 ha), Bandera (43 ha), Cinco Villas (13 ha) eta tiro poligonoa (2.244 ha)".

Hurrengo testua jarri haren orde: "Hondo de Espartosa (272 ha), Bandera (43 ha), Cinco Villas (13 ha) eta tiro poligonoko (2.244 ha) eremuei bereoneratze-neurriak ezarriko zaizkie, parke naturalaren deklarazio honekin bat."

Zioak: Gure ustez, parke naturaleko lurralde batzuk parkeetik at utzi eta beste erabilera batzuk ematea ezin da parke naturalaren deklarazioen helburuekin uztartu.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

2. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko esaldi bat kentzeko emendakina, hona:

“Errege Bardeetako Junta Nagusiak 1998ko uztailearen 23an behin behingoz eta..”.

Zioak: egokiago da.

3. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hurrengo testua proposatzen da 2. artikuluko testuaren ordeztu:

“Errege Bardeetako Parkeak Natur Baliabideak Antolatzeko Plana izanen du araubide, Nafarroako Gobernuak behin betikoz irailaren 7ko 266/1988 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuena, hain zuzen”.

Zioak: Legeak behin betiko egintza aipatu behar du, indarreko legediaren arabera. Nafarroako Gobernuak Foru Dekretuz emandakoa da behin betiko egintza hori. Plan hori Bardeako Junta Nagusiak onetsi zuen berbera dela esan nahi bada, hobe litzateke zioen azalpenean adieraztea, eta ez artikuluetan.

4. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari 2. puntua gehitzeko emendakina. Hona testua:

“2.- Aurreko lerroaldean esandakoaren kalteetan gabe, Vedado de Eguaras, Rincón del Bú eta Caidas de la Negra natur erreserben kudeaketak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esku jarraituko du, landu eta onetsiko dituen erabilera eta kudeaketari buruzko planen arabera”.

5. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari 3. puntua gehitzeko emendakina. Hona testua:

“3.- Hirigintza- edo ingurugiro-legediak baimengarritzat jotako jarduera eta erabilerak burutu ahal izateko Errege Bardeako lurraldean, Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimena beharko da, aurretik”.

Zioak: Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legea Nafarroako Foru Komunitate osoan aplikatzearekin bat etortzeko; izan ere, esparru-legea da, eta, bere artikuluetan aurreikusi badu ere hainbat eginkizun delegatzea -Nafarroako Errege Bardeako natur baliabideak antolatzeko planaren VII. kapituluak ere halaxe aurreikusi du-, delegazio horrek indarreko legedia eta legediaren aplikazioa hartu behar du abiapuntutzat, eta ez maila apalagoko antolamendu-plan bat.

6. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari 3. puntua gehitzeko emendakina. Hona testua:

“4.- Nafarroako Errege Bardean diren edo izan daitezkeen hegaztien babesgune bereziak eta babes bereziko eremuak zaindu eta erabiltzeko araubidea Europako zuzentzarauk ezarria izanen da.”

Zioak: haien aplikazioarekin bat etortzearen.

7. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari gehikuntza egiteko emendakina. Aurkeztu den testuaren lehen lerroaldeari 1 zenbakia ezarri eta beste lerroalde bat jarri, bigarrena. Hona:

2. artikulua.- 1.

“2.- Nafarroako Ubidea, Errege Bardeako parke naturalaren deklarazioa justifikatzen duten helburuekin bateragarri denez, aipatu parke natu-

ralaren lurralde-eremuan jar daiteke, edo eremu hori zeharka dezake, parkeko hurrengo aldeak salbu: natur erreserba, hezegune edo hegaztien babesgune berezitat jotakoak. Halaber, garapen eutsigarria sustatuko da, lurraldeko balio naturalen kontserbazioa eta ureztatutako nekazaritzaren aprobetxamendua uztartzeko.”

Zioak: Errege Bardean dauden interes bereziko guneen babes araubidea ziurtatu nahi da, legean beren-beregi aipatuz, eta Nafarroako ubidearekin uztartu -azpiegitura seinalatua baita-. Alegia, udalez gaidiko eragina duen proiektuzat deklaratu nahi da, ureztatzeke eremuak eraldatzearekin batera, emendakina aurkeztu zaion Foru Lege proiektua egin eta gero.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

8. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hurrengo testua jarri lege proiektuaren testuaren ordeztu:

“Parke Naturala kudeatzea Errege Bardeetako Patronatuari dagokio, eta berak izanen ditu indarra duen legediak Parke Naturaletako kudeaketa organoei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak. Hona osaketa:

1.- Patronatuko burua: Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Departamentuko burua, zeinak Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiko buruari eskuordetu diezaiokeen burutza.

2.- Buruordea: Errege Bardeetako Juntako burua.

3.- Kideak: Errege Bardeetako Juntako 8 ordezkari, aipatu Juntako kideek beraien artean aukeratuak.

Hurrengo erakunde eta elkarteetako ordezkariak, 9 guztira:

Bardeako Nekazarien Sindikatuko bat.

Nekazarien Gremioen Batzordeko bat.

Bardeetako Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteko bat.

“Merindad de Tudela” Ikasketa Zentroko bat.

“Eder” Turismo Partzuergoko bat.

Eskualdeko ingurugiro-elkarteetako bat.

Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluan ordezkari dute ingurugiroa zaintzeko antolamenduetako bi.

Vedado de Eguarasko jabeen ordezkari bat.

Nafarroako Errege Bardeetako Patronatuak eginen ditu bere estatutuak, bere funtzionamendua arautzeko”.

Zioak: 4/89 Legeak dioenaren ildotik; izan ere, patronatua sortzea iradokitzen du -eta halaxe egin da Nafarroako gainerako parke naturaletan-, kudeaketa administratiboa eta sentiberatasun ezberdinak uztartzeko.

9. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Hirugarren artikulua aldatzeko emendakina.

3. artikulua. 1. Parke Naturala kudeatzea udal gozamenkideei dagokie, eta, hala bada, Bardeetako Komunitateari; izan ere, beraiek izanen dituzte indarra duen legediak Parke Naturaletako kudeaketa organoei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak.

2. Bardeetako Juntak onetsiko dituen ordenantzek arautuko dituzte Errege Bardeetan gara daitzkeen jarduera eta erabilerak; hala ere, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak legezkotasunari buruzko txostena emanen du aurretik, ordenantzak aurkeztu eta bi hilabeteko epean.

Naturguneak zaintzeko legediak erabilera eta kudeaketari buruzko plan zuzentzaileei esleitu dizkien izaera eta ondorioak izanen dituzte Errege Bardeetako ordenantzek.

3. Nafarroako Gobernuaren eta Bardeetako Juntaren administrazioarteko lankidetzarako, eta baita gizartearen partehartzea bultzatzeko ere, Errege Bardeetako Batzorde Aholkuemailea abiaraziko dute aipatu bi erakundeek.

Zioak: idazkera duinagoa eta egokiagoa ematea, Gobernuak berak, Ingurugiro Departamentuaren bitartez, duen erantzukizun utziezina salbatuz.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

10. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Errege Bardeetako Batzorde Aholkuemailea kendu nahi da, organo aholku-emaile gisa, lehen proposatu den Errege Bardeetako Patronatuaren barruan dagoelako haren ordezkari.

11. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Laugarren artikuluko 1. zenbakia aldatzeko emendakina. Hona:

“4. artikulua. 1. Errege Bardeetako Batzorde Aholkuemailea sortzen da, gizarteak parte har dezan eta kudeaketaren titularra den Komunitateari laguntza emateko organo gisa, Nafarroako Gobernuaren eta Errege Bardeetako Komunitatearen arteko elkarlan administratiboa bideratzeko, eta Parke Naturalaren kudeaketan parte har dezan sustatzeko”.

Zioak: idazkera irekiagoa eman eta gizartearen partehartzea nabarmendu.

12. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Laugarren artikuluari 1 bis puntua gehitzeko emendakina. Hona:

“4. artikulua. 1 bis) Eskuarki, Batzorde Aholkuemailearen eginkizun izanen dira aholkua ematea, herritarren lankidetzatza eta partehartzea; aldi berean, parke naturalaren arauak betetzen direla begiratu, balio ekologikoen defentsa eraginkorra sustatu eta parkearen eta inguruaren garapen eutsigarria bultzatuko ditu, eta beharrezko eta egoki iritzitako eginbide oro burutuko Nafarroako Errege Bardeetako parke naturalak osatzen duen naturgunerako.

Zioak: testua osatu, aurkeztu diren beste emendakin batzuen arabera.

13. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Laugarren artikularen 2. zenbakiko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina. Hona:

Hamabost kide esaten duenean hamazortzi kide esan behar du (gainerakoa berdin).

Zioak: testua osatu, aurkeztu diren beste emendakin batzuen arabera.

14. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Laugarren artikularen 2. zenbakiko hirugarren lerroaldea aldatzeko emendakina. Hona:

Hauxe esaten duenean: “...Sindikatuordez-kari bat...”, hauxe esan behar du: “nekazari eta abeltzainen ordezkari handieneko erakundeen hiru ordezkari”.

Zioak: testua osatu, aurkeztu diren beste emendakin batzuen arabera.

15. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Laugarren artikularen 2. zenbakiko azken lerroaldea aldatzeko emendakina. Hona:

Hauxe esaten duenean: “... Eta azkenik, inguramena defendatzeko elkarte edo erakundeen ordezkari bat...”, hauxe esan behar du: “... Eta azkenik, inguramena defendatzeko elkarte edo erakundeen hiru ordezkari” (Gainerakoa berdin).

Zioak: testua osatu, aurkeztu diren beste emendakin batzuen arabera.

16. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Laugarren artikuluko 3. zenbakia aldatzeko emendakina. Hona:

“4. artikulua. 3. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren zuzendari nagusia arituko da Kontseilu Aholkuemailearen buru.”

Zioak: idazkera egokiagoa ematea, eta zera azpimarratzea: Gobernuko ordezkaria izanen dela burua.

17. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste artikulu bat gehitzea proposatzen da, zazpigarrena. Hona testua:

7. artikulua. 1. Errege Bardeetako Batzorde Aholkuemailea sortzen da, Komunitateari parkea kudeatzeko aholku emateko, Nafarroako Gobernuaren eta Errege Bardeetako Komunitatearen arteko elkarlana bideratzeko, eta, beste alde bate-tik, gizartearen partehartzea sustatzeko Parke Naturalaren kudeaketan.

2. Eskuarki, Batzorde Aholkuemailearen egin-kizun izanen dira aholkua ematea eta herritarren lankidetzeta eta partehartzea; aldi berean, parke naturalaren arauak betetzen direla begiratu, balio ekologikoen defentsa eraginkorra sustatu eta par-kearen eta inguruaren garapen eutsigarria bultzatuko ditu, eta beharrezko eta egoki irizitako egin-bide oro burutuko Nafarroako Errege Bardeetako parke naturalak osatzen duen naturgunerako.

3. Batzorde Aholkuemaileak hogeitaz kide izanen ditu. Nafarroako Gobernuaren bost ordezkari: bat Toki Administrazioiko Departamentuak izendatua, bat Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak izendatua, bat Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak izendatua, bat Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak izendatua eta bat Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izendatua. Udal gozamenkideetan sustraituen dauden inguramena defendatzeko elkarte hiru ordezkari. Nekazari eta abeltzainen ordezkari. Errege Bardeetako Arrantzale eta Ehiztari Elkartearen ordezkari bat. "Eder" partzuergo turistikoaren ordezkari bat. Erriberako Turismo Enpresarioen Elkartearen ordezkari bat. "Merindad de Tudela" ikerketa zen-troaren ordezkari bat. Eta, azkenik, inguramen, nekazaritza, abeltzaintza, kultura eta turismo kon-tuetan udal gozamenkideetan ospe aitortua duten bost pertsona, Komunitateko Junta Nagusiak izendatuak.

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren Ingurugiro Zuzendari Nagusia arituko da Kontseilu Aholku-emailearen buru.

4. Bardeetako Komunitateko Junta Nagusiak izendatuko ditu, kideen bi herenen gehiengoaz izendatu ere, Kontseilu Aholku-emailearen kideak, Kontseiluan ordezkari-tza duten gizarte-eragileek proposatuta.

5.- Erregelamendu baten bitartez arautuko du Komunitateko Junta Nagusiak Kontseilu Aholku-emailearen eginkizunak, osaketa eta funtziona-mendua. Bardeetako Komunitateko Batzorde Iraunkorreko kideak ere joan ahal izanen dira Kontseilu Aholku-emailearen bileretara, horretara-ko izendatuko diren teknikariek batera.

Zioak: Parke naturaleko kudeaketan parte har-tzeko eta aholkua emateko organoa definitu da. Osaketa oso anitza du.

XEDAPENEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

18. EMENDAKINA

«EZKER ABETZALEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarriari gehikuntza egiteko emendakina

Nafarroako Gobernuak neurri administratibo oro hartuko du hurrengo naturguneak monumentu natural deklaratzeko:

– La Ralla, El Rallón, Cornialto, Piskerra, La Estroza eta Castildetierra izeneko muinoa.

Zioak: Natur baliabideak antolatzeko planean Castildetierra izeneko muinoaren deklarazioa baino ez da ageri; gure ustez, ordea, babes-figura hori eman behar zaie aipatu tokiei, arraroak direla-ko, eta hezkuntza-potentziala eta garrantzi paisa-jistikoa dutelako.

19. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Beste xedapen iragankor jartzeko emendaki-na: Hona:

Lehen xedapen iragankorra. Bardeako Komu-nitateak ordenantzak errebisatzeari ekinen dio, Foru Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean. Aipatu epea igaro eta ordenantzen proiektua ez bazaio aurkeztu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, derrigorrezko txostena eman dezan, Departamen-tuak Juntari eskatuko dio hiru hilabeteko epean

aurkeztu dezala aipatu proiektua. Azken epe hori igaro eta Juntak ez badu agindutakoa bete, Departamentuak bere gain hartuko du ordenantzak idaztea eta Nafarroako Gobernuari bidaltzea, Gobernuak onar ditzan.

Zioak: aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearren.

20. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria bat eranstea. Hona testua:

Lehena.- Foru Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epea - gehienez- izanen du Bardeetako Komunitateak bere ordenantzak Foru Lege honi egokitzeko.

Zioak: epea jarri ordenantzen beharrezko egokitzapenerako.

21. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat eranstea. Hona testua:

Hirugarrena.- Foru Lege honek indarra hartu eta urtebete igaro bada Bardeetako Komunitateak indarreko ordenantzak egokitu gabe, Nafarroako Gobernuak, hiru hilabeteko epean gehienez ere, foru dekretuz egokitu dituzte aipatu ordenantzak.

Zioak: Nafarroako Gobernuari ordenantzak egokitzeko ahalmena ematea, salbuespen gisa, Bardeetako Komunitateak halakorik egiten ez badu.

22. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Beste xedapen iragankor bat gehitzeko emendakina. Hona:

Bigarren xedapen iragankorra. Foru Lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean eratuko da Kontseilu Aholku-emailea, eta lehen bilera eginen du.

Zioak: idazkera egokiagoa ematea.

23. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat eransteko emendakina. Hona testua:

Laugarrena.- Foru Lege honek indarra hartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean eratuko da parke naturala kudeatzeko Kontseilu Aholku-emailea.

Zioak: Kontseilu Aholku-emailea eratzeko epea jartzea.

24. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat eransteko emendakina. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Errege Bardeetako Komunitateak beharrezko neurri eta ekinbide guztiak hartuko dituzte Nafarroako Parlamentuak 1991ko urriaren 5ean eta abenduaren 17an, eta 1998ko ekainaren 30ean eta abenduaren 9an hartutako erabakietan agertzen den borondatea betetzeko.”

Zioak: Nafarroako Parlamentuak Bardeetako tiro-poligonoari buruz adierazi duen borondatea argi utzi, eta Nafarroako Gobernuari eta Bardeetako Komunitateari agindua ematea Nafarroako Parlamentuaren erabakiak gauzatzeko behar diren egintzak burutu ditzaten.

25. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bat gehitzeko emendakina.

Xedapen iragankorra

“Errege Bardeetan dagoen tiro-poligonoaren errentamendu kontratu indarrekoa bukatzen denean, han dauden instalazio militarrek deuseztuko dira, eta gaur egun erabilera militarra duten lur horiek parke naturalaren lurralde eremuan sartuko dira, Lege honek dituen babes-ondorio guztietarako.”

Zioak: Parlamentuak aipatu gaiari buruz behin eta berriz adierazi dituen eraginkor eta lotesle bihurtzea.

26. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan lehena aldatzeko emendakina. Hona:

“Lehena.- Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio Foru Lege hau betetzeko behar diren xedapenak eman ditzan.”

Zioak: egokiago idaztea.

27. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan bigarrena aldatzeko emendakina. Hona:

“Bigarrena.- Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

Zioak: egokiago idaztea.

28. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan bigarrenaren zati bat aldatzeko emendakina:

Esaten duenean : “hogei egunetan”, hauxe esan behar du: “biharamunean”.

Zioak: ez dadila legearen indarraldia atzeratu.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**29. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko emendakina, azken bi lerroaldeetan aldatu ere. “Inguramena Errege Bardeetan ...,”tik bukaeraraino. Hauxe jarri behar da:

Inguramena Errege Bardeetan babesteko lege-erregimena bilakatuz joan da Lurraldea Babestu eta Erabiltzeari buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legeak lehenbiziko natur erreserbak deklaratu zituenetik (Rincón del Bu, Caídas de la

Negra) harik eta natur erreserbak mugatu ziren arte. Berrikiago, kasuko toki entitate eskudunak sustatuta -Nafarroako Naturguneei buruzko 9/1996 Foru Legeak halaxe aurreikusi baitu- Natur Baliabideak Antolatzeke Plana onetsi da (irailaren 7ko 266/1998 Foru Dekretua). Bardeetako Komunitatearen ekimena lehenbizikoa izan da Nafarroan natur baliabideak antolatzeke plan bat itxuratzeko. Araudi horretan Errege Bardeak Parke Natural deklaratzeko, aprobetxamendu antolatutako eta etorkizuneko belaunaldientzako gordezko modurik egokiena delakoan.

Zioak: Testua aldatu, aurkeztu diren beste emendakin batzuen arabera.

30. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Hurrengo testua sartzea proposatzen da, zioen azalpenaren hasieran:

“Nafarroako Errege Bardeetako lurraldearen historia zabal-luzean zehar, haren arautze juridikoak ez du inoiz behar zuen maila eta garrantzia izan. Lurralde horri buruz dagoen lehen berri historikotik hasita -alegia, Antxo Gartzia Iruñeko errege Erronkari Ibarrari eman zion lehen pribilegioa, 806. urtean- Errege Bardeetako natur baliabideak antolatzeke plana berrikitan onetsi arte, mugarri historiko eta juridiko anitz izan dira Errege Bardean, oso garrantzizkoak, eta horien artean aipatuko ditugu 1705eko apirilaren 14ko Errege Zedula; Komunitatearen lehen ordenantzak, 1820ko irailaren 15ekoak; 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduaren 14. artikulua; Nafarroako Foru Diputazioak 1935eko urtarrilaren 18an hartu zuen erabakia; 1961eko urtarrilaren 31ko ordenantzak; Foru Berriaren edo Nafarroako Foru Zuzenbide Pribatuaren bildumaren (1973ko martxoaren 1ean argitaratua) 43. Legea; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 1990eko uztailaren 2ko Foru Legea; eta lurraldearen antolamenduari eta naturguneei buruz Foru Komunitatean berrikitan eman den legedi sektoriala.

Zioak: zioen azalpenaren testua hobetzea.

31. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste lerroalde bat eranstea proposatzen da, Foru Lege proiektuaren zioen azalpenaren zortzigarrenaren ondotik:

Errege Bardeetako parke naturala deklaratzeko josten da figura juridikorik egokiena, aurretik zeuden baloreak eta ekosistemak zaintzeko ez ezik, plangintza eta kudeaketa osoak eta koherenteak bermatzeko ere, egungo eta etorkizuneko eskakizunak bermatzearren, garapen eutsigarriaren ikuspuntutik. Parke naturala da, halaber, udal gozamenkideek, Junta Nagusiaren eta ordenantzen bidez, azken hamarkadetan baliatu dituzten erabilera- eta kudeaketa-formulak hobekien zaintzen duen botere publikoen deklarazioa. Era berean, ohiko sektoreek eta artisauek ekoitzi bertako produktuen balio ekonomiko diferentziala bultzatu eta handitu egiten ditu parke naturalak, eta, aldi berean, kanpoko baliabide ekonomikoak erakartzen ditu Bardeara eta handik hurbilen dauden hir-guneetara, eskualdeko gizarte- eta ekonomia-garapenaren mesederako.

Zioak: zioen azalpenaren testua hobetzea.

32. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste lerroalde bat sartzeko proposamena, zioen azalpenaren azken lerroaldearen ondotik. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak, gainera, birritan adierazi du Errege Bardeak parke natural deklartzeko borondatea, hain ditu-eta balio handiak: Basa Fauna eta haren Habitata Zaindu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen hamabigarren xedapen iragankorrrak Nafarroako Gobernuak premiaturik zuen Errege Bardeetako parke naturala sartzeko beharrezko ekimenak antola zitzaizkion. Era berean, ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarriak, lau urtebeteko epea ematen du, gehienez ere, Nafarroako Gobernuak Errege Bardeetako parke naturalaren deklarazioa, besteak beste, susta dezan. Beraz, argi eta garbi dago erakunde legegilearen interesa lurralde hori parke natural deklartzeko; izan ere, lurralde garrantziko-koenatariko bat baita Nafarroaren aniztasuna eta nortasun berezia taxutzeko garaian, eta, hartara,

lege-estatutu berria emanen zaio, berezko balio esanguratsuenak aintzat hartu eta etorkizuneko belaunaldietarako gordetzearren.

Zioak: zioen azalpenaren testua hobetzea.

33. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste lerroalde bat sartzeko proposamena, zioen azalpenaren azken lerroaldearen ondotik. Hona testua:

Legeak beren-beregi adierazten du zioen azalpenean Nafarroako Parlamentuak erakutsi duen borondatea; alegia, Errege Bardeetako tiro-poligonoari beste erabilera militar batzuk ematearen aurka dagoela. Hortaz, Nafarroako Gobernuari eta Bardeetako Komunitateari agindua ematen die beharrezkoak egin ditzaten Nafarroako herria ordezkatzeko duen erakundearen nahia errealitate bihurtzeko.

Zioak: zioen azalpenaren testua hobetzea.

34. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren zortzigarren, eta azkenareko, lerroaldearen ondotik hauxe gehitu:

“Nafarroako ubidearen interes orokorra Estatu-ko lege batean eta Nafarroako Gorteen beste Foru Lege batean deklaraturik dago, eta horrek zilegi egiten du ubidea hemen ere aipatzea; izan ere, parkearen lurraldearen baitan eraiki daiteke, zati txikia hartuko badu ere, edota lurralde hori zeharkatu. Hortaz, parkea sartzeko helburuekin bateragarria bada ere, ubidea ezin izanen da parkeko gune jakin batzuetan sartu, natur erreserbataz edo hegaztien babesgune berezitatat jotakoe-tan, alegia.”

Zioak: zioen azalpenaren proposatu dugun aldaketa hori bat dator beste lerroalde bat erantsiarekin Foru Lege proiektuaren 2. artikuluan; izan ere, legegintza-teknika txukunak halaxe eskatzen baitu: beste atal bat sartzeko arrazoiak eman behar baitira zioen azalpenean.

**XEDAPEN GEHIGARRIARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINA**

**«EZKER ABERTZALEA»
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Hurrengo testua erantsi nahi da, xedapen gehigarri gisa:

Nafarroako Gobernuak beharrezko ekinbide eta neurri oro hartuko du Nafarroako Parlamen-

tuak behin eta berriz azaldu duen borondatea bete dadin; izan ere, 1991-10-5ean, 1991-12-17an, 1998-6-30ean eta 1998-12-9an adierazi baitzuen Parlamentuak tiro-poligonoa deuseztearen alde zegoela.

Zioak: Sinestezina zaigu ez natur baliabideak antolatzeko planak, ez oraingo Foru Lege proiektu honek propio ez aipatzea Nafarroako gizartearen borondatea eta Nafarroako Parlamentuaren erabakiak, Bardeetako tiro-poligonoaren deuseztea sustatzeko.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona

EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduaren 136.6 artikulua xedaturikoa betez, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpen bat Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzen da. Hauxe da irizpenaren xedea: Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona, zeina 82 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, 1998ko urriaren 27an.

Irizpena dela-eta, ez da emendakinik mantendu, ez eta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 1999ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona

ZIOEN AZALPENA

Laneko segurtasun eta osasunaren zenbatekoan eta laneko arriskuen prebentziorako neurri-multzoan eragin garrantzitsua izateko helburua duten botere publikoen politikak eta jarduketek funtsezko osagai bilakatu behar dute haiek lan-merkatuari dagokionean burutzen duten jardueran.

Laneko istripuei buruzko datu eta estatistikak asaldagarriak dira, nahiz eta gaur egun lan-arris-

kuen arloan daukagun prebentziorako legedia Europako Batasunekoarekin parekagarria izan.

Horrela, 1997an 11.179 lan-istripu gertatum ziren Nafarroan. Kopuru horretatik, 26k heriotza eragin zuten; zera esan nahi du horrek: 1997an zehar Nafarroan lan-istripuen ondoriozko hildako bat izan zen 13,8 egunero.

Hala eta guztiz ere, berez dramatikoak diren kopuru horiek ez daude hobetze-bidean. 1998an zehar, eta abuztuaren 12ra bitartean, lan-istripu heriotz eragileen estatistika egunero 10,6 hildako bat izateraino iritsi zen.

Beraz, beharrezkoa da administrazioaren jarduketa irmoagoa izatea langileek osasunerako duten oinarrizko eskubidea babesteko, laneko segurtasun eta osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan dagoen araudia hobeto betez.

Ildo horretatik, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Lege berrian honako debeku hau jaso da: laneko segurtasun eta higienezko aurkako delituen ondoriozko epai irmoz kondenaturiko pertsonen administrazio publikoekin kontratatzeke ezarritakoa.

Gaur egun ere, behar-beharrezkoa da administrazioak indarreko legedia betetzeko exigentzi-mailak igotzea, eta gai honetan administrazio-kontratazioak zaintza-eginkizuna sendotu egin behar du legedia betetzeari dagokionean.

Azken batean, lege proposamen honetan ezarritzen da, Administrazio Publikoekin kontratatu nahi duten pertsona natural edo juridikoek bete beharreko betekizun gisa, dokumentu bidez frogatu beharra Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean agertzen diren laneko segurtasun eta osasunaren eta lan-arris-

kuen prebentzioaren arloko galdakizun eta betebeharrak betetzen direla.

Artikulu bakarra.

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 67.2 artikulua e) letra aldatu egiten da. Hona nola geratuko den idatzita:

“e) Indarra duten xedapenek ezarritako hurrengo betebeharrak betetzen dituztela frogatzen dutenak: zergei buruzkoak, Gizarte Segurantzare-

kikoak, laneko segurtasun eta osasunekoak eta laneko arriskuei aurre hartzekoak.”

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Beteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Beteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Beteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (14. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (14. or.).
- IV. Iritzia (15. or.).
- V. Finantza-egoera: 1995eko abenduaren 31ko aurrekontu betetzea (17. or.).

Eranskina: 1995eko abenduaren 31ko finantza-egoera (18. or.).

I. SARRERA

Beteluko Udalerria Iruñeko merindadean dago, Nafarroako hiriburutik 45 kilometrora, eta 334 bizilagun eskubidedun ditu.

1998ko irailean Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldearen eskarieren ondorioz, Beteluko Udalaren fiskalizazio txostena egiteko eskatu zion Kontuen Ganbarari; hain zuzen ere, 1995eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Horren ondorioz, aipatu eskaera Kontuen Ganbararen 1998ko lan programan sartu zen.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeak, Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/90 Foru Legeak eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legeak ezarritakoaren arabera, eta jasotako eskaria aintzat hartuta, Beteluko Udalaren 1995eko ekonomiaren eta finantzen kudeaketaren eta aurrekontuaren dirusarrera eta gastuen gaineko fiskalizazioari ekin diogu.

Fiskalizaturiko udal erakundeari ezar dakioken legedia, aipatu legeez gain, honakoak osatzen dute: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki erregimenaren oinarriak arautzen dituena; Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua; kontratazio publikoa arautzen duten arauak; eta, halaber, Nafarroako toki erakundeei eskuarki ezar dakizkiekeen gaineko arauak.

Txostenaren helburua da hurrengo gaiei buruz gure iritzia ematea:

- a) Beteluko Udalaren 1995eko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 1995eko abenduaren 31ko ondare egoera azalaraztea, eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera.
- c) Udalaren ekonomia- eta finantza-jarduera legezketasun hatsapenen arabera ote den.
- d) Udalaren finantza egoera 1995eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOAK ETA MUGAK

Nafarroako Kontuen Ganbarak, Nafarroako Parlamentuak eginiko eskaerari erantzunez, Beteluko Udalaren fiskalizazioari buruzko txostena burutu du; hain zuzen ere, 1995eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Udalak bere eragiketak eskuz erregistratzen ditu, eta, indarrean dagoen legediak agindutakoaren arabera, aurrekontu kontabilitatean besterik ez ditu islatzen. Hortaz, eginiko lanean diru sarre-
ra eta gastuen kapitulu ekonomikoak ez ezik, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi batzuk ere aztertu dira.

Txostenak 1995eko ekitaldia aztertzen badu ere (hori baita Parlamentuak eskatutakoa), egokia iruditu zaigu 1997ko abenduaren 31ko egoerari buruzko deskribapena ere eskaintzea.

Udaleko administrazio- eta kontabilitate-jarduerak beste udal batean ere aritzen den idazkari batek egiten ditu. Gordailuzain lanak herritar batek egiten ditu eta zerbitzu hori ordaindu egiten zaio.

Fiskalizazio lana espainiar estatuko barne kontrolerako erakunde publikoen koordinazio batzordeak onartutako hatsapen eta araei jarraituz egin da. Lana hasi aurretik Udalari bidalitako galdera sortak islaturiko arazo eta bestelako gorabehera egokitutako frogak ere egin ditugu.

Gure lanak izan dituen mugak honakoen ondorio dira:

- Barne kontrol eskasa. Horrek aurrekontu eta diruzaintzako datuak aztertzerakoan segurtasun eza sortzen du.
- Kontu-agirien kopuru nabarmenak ez du justifikaziorik.
- Udalak erabiltzen duen artxibo sistema dela eta, ez dakigu dokumentazio osoa ikusi eta aztertu dugun.
- 1995eko abenduaren 31ko diruzaintzako kontakatarik ez dago. Kontaketak finantza saldo guztiak bildu beharko lituzke.
- Aurrekontuz kanpoko eragiketen erregistrorik ez dago.
- Jaso eta bidalitako agirien erregistrorik ere ez dago.

Txostenak, Udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jo ditugun iruzkin eta aholkuak biltzen ditu; halaber, badu 1995eko bukaeran zegoen finantza egoera aztertzen duen eranskina.

Zelaiko lana 1998ko azaro eta abenduan egin zen. Lan horretan auditore bat eta bi auditoretza-teknikari aritu ziren. Kontuen Ganbarako lege, informatika eta administrazio zerbitzuek ere parte hartu dute txostenean, nork bere laguntza eskainiz.

Beteluko Udalaren laguntza eskertu nahi dugu lan hau burutzea erraztu duelako.

IV. IRITZIA

Burututako fiskalizazioaren esparruan, Beteluko Udalaren gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzearen egoera aztertu dugu; 1995eko ekitaldiari dagokiona, hain zuzen.

Gure azterketan Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoaren fiskalizatorako onartutako arau eta prozedurak erabili ditugu.

Aipatzekoa da Parlamentuak eskatutako fiskalizazioa 1995ekoa dela; beraz, horixe da Kontuen Ganbarak fiskalizatu duen ekitaldia.

Azterketaren ondorioz, horra gure iritzia:

1995eko aurrekontuaren betetze eta garapenari buruz

Aurrekontu eta kontu arloetan antzeman ditugun barne kontrol arazoak direla eta, ezin dugu Beteluko Udalaren 1995eko aurrekontu kitapenari buruzko iritzirik eman.

Ondare egoeraren isla

Ondare kontabilitate ezak eta ondasun zerrenda gaurkotu gabe egoteak (dagoena 1993koa da) ez digu aukerarik ematen Beteluko Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen ondare egoerari buruzko iritzirik eskaintzeko.

Legezketasuna

Indarrean dagoen legediaren arau hauste nabarmenak aurkitu ditugu, batez ere kontabilitate eta aurrekontu arloetan eta baita kontratazio administratiboan ere. Honakoak dira bereziki azpimarratu nahi ditugunak:

- Aurrekontu kontsignaziorik gabeko gastuak.
- Aurrekontu egozpen desegokiak.
- Zerbitzu mankomunatuaren ordainketarako ekarpenen justifikazioa aurreikusitakoaren arabera egiten da, ekitaldi amaieran eginiko gastu erreala kontuan hartu gabe.
- Kontratazio espedientetan oinarrizko dokumentazio falta.
- Administrazio baldintzen eta baldintza teknikoaren orri falta.
- Kontratu falta, obra zein zerbitzugintzetan, eta eskatu beharreko fidantza eza.
- BEZaren gaineko araudia eta PFEZaren atxikipenaren gaineko araudia ez dira betetzen.

Egoera ekonomikoa 1995eko abenduaren 31n

Aipaturiko iruzkinek eta, bereziki, kutzako irizpidea zuzen erabiltzeko beharrak ez digu aukerarik ematen Beteluko Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen finantza egoeraz iritzirik emateko.

Dena den, eginiko azterketaren arabera, Beteluko Udalaren egoera honakoa zen 1995eko abenduaren amaieran (milioitan):

Kontzeptua	Saldoa
Finantza kontuak	4.210.406
Zerga-zordunak	2.045.966
1995-12-31n ordaintzeke zeuden fakturak	(685.710)
Pilotaleku estaliaren obretako zorra	(31.363.960)
Diruzaintzako gerakina	(25.793.298)
Epe luzerako zorrak (banku maileguak)	(15.865.436)

Datuok finantza egoera, epe motzera behintzat, larria dela erakusten dute. Egoera hori neurri batean konpondu da Udalak Nafarroako Gobernuari zor zion 31 milioiko zorra 1996an kitatu delako. 1995eko abenduaren 31n erregistraturik ez zegoen zor hori pilotaleku estaliaren obrei zegokien eta kitapenaren truke frontoiaren jabetza erdibana dute Udalak eta Nafarroako Gobernuak.

Udalaren gaur egungo egoera

Txostenak 1995eko datuak biltzen baditu ere, egokia iruditu zaigu ordutik hona Udalak hartu dituen neurriak aipatzea, neurri horiek Udalaren kudeaketa nabarmen hobetu baitute. Horien artean, honakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Aurrekontuaren dirusarrera eta gastuen kontabilizazio eta erregistroan sortzapean irizpidearen erabilpena.

- Zorren gaineko kontrola.
- Aurrekontu-egozketak izaera ekonomikoaren arabera egitea.
- Ekitaldi amaieran diru kontaketa egitea, eta, bertan, finantza saldo guztiak sartzea.
- Aurrekontuz kanpoko eragiketen kontu erregistroak.
- BEZaren gaineko aitorpena.
- Zerga-zordunen saldoen azterketa.
- Agirien sarrera eta irteeren erregistroa.
- Kontu eta aurrekontu prozesua informatizatzeke aurreko lanak.

1997eko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, horra datuak (milioitan):

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diruzaintzako gerakina	17
Epe luzerako zorrak	(23)

Datu horien arabera, badirudi epe motzerako finantza egoera nabarmen hobetu dela, eta horretan zerikusirik handia izan du Udalak Nafarroako Gobernuari zor zion 31 milioiko zorraren kitapenak.

Laburbilduz, eta **ondorio nagusi gisa**, 1995ean Beteluko Udalaren finantza zein administrazio kudeaketak txarrak ziren. Izan ere, barne kontrola eskaxa zen, aurrekontuaren datuek ez zuten sinesgarritasunik, toki administrazioen kudeaketaren arlo nagusiak arautzen dituzten arauak ez ziren betetzen eta Udalaren egoera ekonomikoa larria zen. Gaur egun, ordea, begi bistan dago egoera hobetzeko hartu beharreko neurriak hartzen ari direla.

V. FINANTZA EGOERA

Beteluko Udalak aurkezturiko 1995eko aurrekontuaren kitapena honakoa da:

Beteluko Udala 1995eko gastuen aurrekontua Betetzea, artikulua			
Kontzeptua	Aurrekontua	Onartu- tako bete- beharrak	Beteta- koaren %.
16. art. Lan kontratupeko langileak	50.000	2.295.116	4.590
17. art. Langile kontratatuak	683.680	683.680	100
18. art. Gizarte aseguruak	37.000	48.792	132
19. art. Pasiboak	1.361.000	1.387.710	102
1. kapitulua, guztira	2.131.680	4.415.298	207
21. art. Bulegoko gastuak	1.300.000	498.386	38
22. art. Ondasun higiezin gastuak	4.630.000	3.192.015	69
23. art. Garraio eta komunikazioak	0	12.236	-
24. art. Dietak, lokomozioa eta lekualdaketak	0	371.498	-
25. art. Zerbitzuen funtzionamendurako gastu bereziak	3.331.000	3.166.344	95
26. art. Inbertsioen kontserbazio eta konponketarako gastuak	3.775.000	25.000	1
27. art. Beste inbertsio batzuen kontserbazio eta konponketarako gastuak	0	167.051	-
28. art. Aurreikusi gabeko gastuak	100.000	298.731	299
2. kapitulua, guztira	13.136.000	7.731.261	59
32. art. Aurrerakin eta maileguen interesak	540.000	1.085.090	201
3. kapitulua, guztira	540.000	1.085.090	201
43. art. Lurralde-enteen ohiko transferentziak	3.290.000	4.002.335	122
47. art. Irabazi asmorik gabeko erakundeendako ohiko transferentziak	562.000	307.855	55
4. kapitulua, guztira	3.852.000	4.310.190	112
61. art. Komunitararako zonaren prestaketa	0	387.787	-
62. art. Frontoi berria	5.500.000	5.414.783	98
63. art. Bideak	0	1.746.561	-
64. art. Eskoletako inbertsioak	0	4.025.056	-
65. art. Indianoetxea	0	11.183.056	-
66. art. Hornidura obrak	0	6.451.736	-
67. art. Kontsultategia	0	4.000.000	-
6. kapitulua, guztira	5.500.000	33.208.979	604
95. art. Maileguen amortizazioa	3.863.770	9.000.000	233
9. kapitulua, guztira	3.863.770	9.000.000	233
Gastuen aurrekontua, guztira	29.023.450	59.750.818	206

Beteluko Udala
1995eko dirusarreraren aurrekontua
Betetzea, artikulua

Kontzeptua	Aurrekontua	Kitatutako esku- bideak	Beteta- koaren %.
11. art. Errentaren g. zuzeneko zergak	7.300.000	5.400.778	74
Kapitulua, guztira	7.300.000	5.400.778	74
29. art. Zeharkako beste zergak		1.440.124	
2. kapitulua, guztira		1.440.124	
32. art. Zerbitzugintzaren gaineko tasak	1.100.000	1.469.242	134
33. art. Aprobetxam. berezien gaineko tasak	500.000	3.909.563	782
38. art. Itzulerak	154.950	-	0
39. art. Aprobetxam. komunalak	-	186.423	-
3. kapitulua, guztira	1.754.950	5.565.228	317
41. art. Estatuaren ohiko transferentziak	646.000	1.136.490	176
43. art. Lurralde-enteen ohiko transf.	17.560.000	12.200.178	69
48. art. Familia eta ISFLen ohiko transferentziak	-	185.000	-
4. kapitulua, guztira	18.206.000	13.521.668	74
53. art. Gordailuen interesak	400.000	558.365	140
55. art. Higiezin errentak	1.062.500	1.362.500	128
5. kapitulua, guztira	1.462.500	1.920.865	131
61. art. Inbertsioen besterenganatzea	300.000	585.217	195
6. kapitulua, guztira	300.000	585.217	195
73. art. Lurralde-enteen diru transferentziak	-	12.280.319	-
7. kapitulua, guztira	-	12.280.319	-
95. art. Epe luzerako maileguak	-	19.000.000	-
9. kapitulua, guztira	-	19.000.000	-
Dirusarreraren aurrekontua, guztira	29.023.450	59.714.199	206

Lanaren arduradun Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak proposatuta ematen da txostena, behin indarrean dagoen legediak aginturiko tramiteak bete ondoren.

Iruñean 1999ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA: 1995EKO ABENDUAREN 31KO FINANTZA EGOERA

Eginiko lanaren arabera, eta txostenean zehazturiko mugak kontutan hartuz, 1995eko abenduaren 31ko finantza egoera aztertu da udal barneko informazioan zein kanpokoan oinarriturik.

Kontzeptua	Saldoa
A. Finantza kontuak	4.210.406
B. Zerga zordunak	2.045.966
Zorrak, guztira	(47.915.106)
C. Kobratzeke (1995-XII-31)	685.710
D. Frontoi estaliaren zorra	31.363.960
E. Epe luzerako zorrak (banku-maileguak)	15.865.436

Ondoren, aipatu zenbatekoen gainean egin daitezkeen iruzkin nagusiak gaineratzen ditugu. Udalak duen kontu sistema dela eta, jasotako informazioa, funtsean, Udaletik kanpo lortu behar izan dugu.

a) Finantza kontuak

Zenbateko osotik, hiru milioi obra batzuk egin behar zituen enpresa batek jarritako gordailuari dagozkio. Obrak bukatu ondoren aipatu dirutza itzuli egin zen, eta, beraz, benetako saldo erabilgarria milioi batekoa zen, gutxi gorabehera.

b) Zerga-zordunak

Zenbatekoa 1996ko martxoaren 20ko data duen zerrenda bati dagokio. 1995eko abenduaren 31n kobratu gabe zeuden ordainagirien saldoaren berririk ez dago.

Ez dago garbi 1995 baino lehenagoko hasierako saldoa edo zordunen saldoa. Izan ere, bi zerrenda dira. Batak, 1995eko maiatzaren 16koak, 2,9 milioiko zenbatekoa du. Besteak 1995eko martxoaren 15koak –1998ko urrian sartu zen administrazio-txostenetan– 3,7 milioiko saldoa du.

c) 1995eko abenduaren 31n kobratzeke zeuden fakturak

Ekitaldia bukatuta, kutxaren irizpidea erabiltzearen ondorioz, 1995 urteari dagozkion honako zor hauek antzeman dira:

- Kirol koordinatzailearendako ordainsaria: 617.510 pzta.
- Euskarazko zinemarako gastuak: 18.200 pzta.
- Ur-ekarrerak herritar bati eragindako kalteak ordaintzeko dirutza: 50.000 pzta.

Aipatu fakturak alde batera utzita, Udalak 1995ean eginiko gastu batzuei aurre egin behar izan die. Gastu horiei dagokien faktura edo ordaintzeko eskaera 1996ko ekitaldian jaso zen. Horien artean ikastetxeko geletako arotzia eta elektrifikazio lanak, garbiketak etab. aipa daitezke. Gastuoi aurre egiteko, Udalak 6 milioiko kreditua eskatu behar izan zuen.

d) Frontoi estaliaren zorra

Labur bada ere, frontoiaren obra lanetan gertaturikoa azalduko dugu, eta funtsezkoa esplikatu:

- 1991ko otsailean Nafarroako Gobernua –Hezkuntza Departamentuaren bidez– eta Beteluko Udala akordio batera iritsi ziren frontoiaren finantzaketaz. Horren arabera, Gobernuak 30 milioiko dirutza jarri behar zuen ordurako egina zegoen proiektua ⁽¹⁾ bultzatzeko. Obren adjudikazioa eta ziurtagirien ordainketa ere Nafarroako Gobernuaren esku gelditu ziren.

Udalak, bere aldetik, obraren kostua 30 milioitik gorakoa izatekotan, gainerakoa ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Halaber, proiektuan aldatetarik sartu nahi izanez gero, Gobernuaren baimena behar zuen. 30 milioitik zenbateko osora arteko dirutza ordaintzeko honakoa hitzartu zuten: Departamentuak obraren adjudikazioaren ehuneko 67 1992ko iraila baino lehen ordainduko zuen eta gainerakoa 1993ko ekainaren 1a baino lehen.

- Pilotalekuaren obra lanetan atzerapen handiak izan ziren enpresa eraikitzailearekin izaniko arazoengatik eta Udalean izaniko aldatetengatik, azken horrek irizpide aldatetak ere eragin zituelako. Bestalde, proiektuan aldateta eta hobekuntza batzuk egin ziren eta Udalak batzuetan ez zizkion jakinarazi Departamentuari. Guzti horrek obraren zenbatekoa 61 milioitara igoarazi zuen.

- Udalak ez zuen finantzatu gabeko dirutza (31 milioi) ordaindu eta Departamentuak ez zion idatzizko kexarik helarazi, baina ahozko erreklamazioak izan ziren Departamentuak berak diotenaren arabera.

- 1996ko ekainean Gobernuak eta Udalak hitzarmen berria sinatu eta honakoa adostu zuten:

- * 1991ko hitzarmena bertan behera uztea.

- * Frontoiaren jabetza erdi bana hartzea Gobernuak eta Udalak.

- * Udalak Departamentuarekin zorrik ez duela sinatzea.

(1) Udal lur eremutan egin beharreko proiektuak ikastetxea eta frontoi estaliaren eraikuntza aurreikusten zituen.

• Departamentuak 1998ko uztailean emaniko datuen arabera, Udalak 1995eko bukaeran 31.363.960 milioiko zorra zuen frontoiko lanak direla eta.

Dirutza hau ez dago aurrekontu kitapenean islaturik eta ezta 1995eko kontu espedientean, baina hori bat dator Udalak erabiltzen dituen kontabilitate irizpideekin. Izan ere, erregistroak kutxa-irizpidearen arabera egiten dira eta ez sortzapen-irizpidearen arabera.

e) Epe luzerako zorra

Bankuek emaniko datuen arabera, hauxe zen Udalaren zorra 1995eko abenduaren 31n.

Eragiketa	Noiz emana	Saldo bizia/ Erabilitako kreditua	Epemuga
Kreditu kontua: CAN	1995	4.865.436	2000-XI-9
Mailegua: Rural Kutxa	1995	10.000.000	2005-VIII-21
Mailegua: Rural Kutxa	1995	1.000.000	20005-X-3

1995eko aurrekontu betetzean, finantza-pasi-boen aldaketei buruzko kapituluan 19 milioiko dirutza dago. Hona hemen non dagoen jatorria:

• Indianoetxea erosteko Rural Kutxak aurretik emandako zenbait mailegu: 11 milioi egiten zuten.

• CANek emaniko kreditu kontu bat; 5 milioiko muga zuen. Aurrekontu kitapenean islaturik dago eta ekitaldi bukaeran sortutako benetako zorra 4,8 milioikoa zen. Kreditu hau diruzaintzako 6 milioiko kreditu bat kitatzeko erabili zen. Diruzaintzako kreditua 1994koa zen eta 1995ean zuen epemuga.

• CANek emaniko 3 milioiko diruzaintzako kreditua 1995ean berean kitatu zen eta eragiketa hori gastuen aurrekontuan islatu zen.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--